

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ALEGRÍA-DULANTZIKO UDALA

Karrerako funtzionario izendatzea, administrari lanpostua, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdi prozesuan, hautaketa prozesuak amaitu ondoren

Alegría-Dulantzin, 2024ko abenduaren 19an, hamahiruetan, alkatearen bulegoan alkatea bera, Joseba Koldo Garitagoitia Odria, eta idazkaria, Vanessa Domínguez Casal, direla.

Abian da 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdi prozesuari buruzko espedientea.

Abenduaren 18ko Dekretuak hasiera eman zion ofizioz praktikaldia baliozkotzeko prozedurari, eta izangaia baliozkotzeko proposamena egiteko eskatu zitzaion epaimahaiari, alkateari proposamena helaraz ziezaion, probaldia gaindituzat jotzeko eta, ondoren, izangaia karrerako funtzionario izendatzeko.

Epaimahaiak praktikaldia baliozkotzeko proposatu zuen abenduaren 18an.

Aipatutako agintariak ebazpen hau eman du:

Lehenengoa.– María Inmaculada Galerón Iglesias andrea karrerako funtzionario izendatzea honako lanpostu honetan: administraria – 01.003; eskala: administrazio orokorra; azpieskala: administrariak; taldea: C1.

Bigarrena.– Interesdunari jakinaraztea.

Hirugarrena.– Agintzea ebazpen hau ALHAOn argitara dadila, bai eta erakunde honen iragarki taulan eta web orrian ere (<https://www.alegria-dulantzi.eus/eu/index.php>).

Laugarrena.– Dekretu honen berri ematea egiten den hurrengo bilkuran eta Lehendakari-tzaren Dekretuen eta Ebazpenen Liburuan transkribatzeko agintzea.

Alegría-Dulantzi, 2024ko abenduaren 19a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA